

ARABAKO METALA



ARABAKO METALAREN HITZARMEN PROBINTZIALAREN SOLDATA- IGOERAK, BESTE URTEBETEZ, EZ DU KPI BERMATZEN

**UGTk, CCOOk eta LABek adostutako
%2ak soldata galtzea dakar estatuko
KPlarekiko (% 2,8)**

Arabako metalgintzako hitzarmena sinatu zuten sindikatuek, UGTk, CCOOk eta LABek, % 2ko soldata-igoera adostu zuten 2025erako. Igoera hori aurreko urteetakoei gehitzen badiegu, hauetan ere KPlaren azpiko igoerak adostu zirela kontuan hartuz, Arabako metalean langile-klasearen pobretzea sakontzea dakar, handitzen jarraitzen duten enpresa-mozkinen onerako.

Egoera hori ez dator bat Gipuzkoako metalgintzakoarekin, ELA sindikatuak sinatu zuen bakarra. Bertan, Arabakoak baino soldata handiagoetatik abiatuta ere, 2025erako KPIa bermatzen duen igoera dago. Gainera, Araba da Hego Euskal Herriko metaleko hitzarmen bakarra, taulen gainetik kobratzen duten langileentzat (gehien-gehienak) igoera %0koa dena.

EL INCREMENTO SALARIAL DEL CONVENIO PROVINCIAL DEL METAL DE ARABA, UN AÑO MÁS, NO GARANTIZA EL IPC

**El 2% acordado por UGT, CCOO y
LAB supone una pérdida salarial con
respecto al IPC estatal (2,8%)**

Los sindicatos firmantes del convenio del metal de Araba, UGT, CCOO y LAB acordaron para el año 2025 un incremento salarial del 2%. Si sumamos esta subida a las de los años anteriores donde también se acordaron incrementos por debajo del IPC, en el metal de Araba se consolida el empobrecimiento de la clase trabajadora a costa de los beneficios empresariales, que continúan aumentando.

Esta situación contrasta con la del metal de Gipuzkoa, el único firmado por el sindicato ELA, donde partiendo de salarios superiores a los de Araba el incremento para el 2025 si garantiza el IPC. Además Araba, es el único convenio del metal de Hego Euskal-Herria donde el incremento para los y las trabajadoras que cobran por encima de las tablas (la inmensa mayoría) es un 0%.

LURRALDEA TERRITORIO	SINATZAILEAK FIRMANTES	2023	2024	2025	GUZTIRA TOTAL
Araba	UGT CCOO LAB	3	2,5	2	7,5
Bizkaia	CCOO LAB UGT	4	2	2,5	8,5
Nafarroa	UGT CCOO	4,5	4,5	2	11
Gipuzkoa	ELA UGT	5	3,8	2,8	11,6

*Epe honetako KPI metatua %11,6koa da

* IPC acumulado para este periodo es 11,6%

ELAk uste du negoziazio kolektiboa dela gure jendearen bizi-baldintzak hobetzeko tresnarik onena. Seriotasuna, konfrontatzeko gaitasuna eta, batez ere, langileen aurrean zintzotasuna eskatzen ditu. Bai Araba eta baita Bizkaia metalgintzan ere, gainerako sindikatuek sinatutako akordioak patronalaren neurrira egin ziren.

ELAtik igoera horiek hobetzea lortzen ari gara enpresetako hitzarmenen negoziazioetan, hori da bidea. Etsipenaren aurrean: antolaketa eta borroka.

ELA considera que la negociación colectiva es el mejor instrumento para mejorar las condiciones de vida de nuestra gente. Exige seriedad, capacidad para confrontar y sobre todo honestidad ante la clase trabajadora. Los acuerdos rubricados por el resto de sindicatos tanto en el metal de Araba, como el de Bizkaia, fueron realizados a la medida de la patronal.

Desde ELA estamos logrando mejorar estas subidas en las negociaciones de convenios de empresas, ese es el camino. Ante la resignación: organización y lucha.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



Aktibatu Lortu Zaindu